

Sagarrondotik

ARGIaren aldizkaria sagardoaren kulturaz

Hegaztiak, erleak, zomorroak...

Sagastien zaindari txikiak

Amilox urdina ahoan zomorroa duela. Marcos Miñano.

» Sagardoaren nortasun agiria: Zer edaten dugun badakigu?

» Joxepa Inaxi Elizegi: XIX. mendeko sagardotegiko bertsolaria.

+ EUSKAL HERRIKO SAGARDOTEGIEN GIDA



zapiain.eus



Sagastietan eta inguruetan bizi diren animaliek, polinizatzeko ez ezik, izurriteen kontra egiteko ere balio dute. Dani Blanco

Hegaztiak, erleak, zomorroak...

Sagastien zaindari txikiak

Zenbat eta fauna anitzagoa sagastian, orduan eta aukera gehiago izango da uztza hobea izateko, izurriteak gutxituko direlako eta polinizazioa handitu. Bestalde, sagastiaren itxurak eta inguratzen duen paisaiaren egiturak erlazio zuzena du bertan egongo den fauna aberastasunarekin. Bioaniztasunak, hortaz, sagastiari mesede egingo dio; eta sagastiak berak gure lurraldearen bioaniztasunari lagun diezaiokie.



Iñaki Sanz-Azkue
@sanz_azkue

Sagastietako bioaniztasunaz azterlan oso gutxi egin da Euskal Herrian. Nazioartean, ordea, hainbat herrialdek landu dute gai hori. Ez da gutxiagorako; polinizazioak eta izurriteen kontrako neurriek berebiziko garrantzia dute sagarrondoak emango duen uztan, eta sagastiaren eta inguruaren bioaniztasunak eragin zuzena eduki dezake bi faktore horiengan.

Hala erakutsi dute Oviedoko Unibertsitateak eta Serida zerbitzuak Asturiasen egindako azterlanak. Daniel García eta

Marcos Miñarro biologoek zuzendutako lan-taldeek Asturias erdialdean egin dituzte ikerketak, 800 km²-tan banatzen diren 25 sagastitan; Euskal Herrikan kanpo eginak izanik ere, arretaz begiratu beharko genituzke datu eta ondorioak, hein handi batean gurean ere zentzua izango dutelako.

Ekosistemen zerbitzuez mintzo dira ikertzaileak euren azterketetan, hau da, gure ingurunean faunak eta florak giza-kiaren mesederako bete ditzaketen funtzioez, polinizazioa eta izurriteen kontrako neurriak ardatz hartuta.

Txoriek eta intsektuek eduki al dezakete eraginik sagastiko polinizazioan eta izurriteen kontrolean eta, hortaz, sagastiaren ekoizpenean? Zein hegazti eta zomorro edukitzea komeni zaigu? Eta horiek erakartzeko, zer egin beharko genuke?



Asturiarrek egindako esperimentuak erakutsi du hegazti intsektujaleek nabarmen murrizten dutela sagarrondoak kaltetzen duen animalia kopurua. Oviedoko Unibertsitatea eta Serida

INTSEKTUAK ETA POLINIZAZIOA SAGASTIETAN

Asturiasen egindako ikerketen arabera, sagastietako lore askok ez dute aurrera jotzen, ez dira ernaltzen, polen nahikorik ez dutelako jaso. Polen gehiago jasotzeak, beraz, ernaltzeko aukera handitu eta, ondorioz, sagar uzta hobe izatea ahalbidetuko luke. Ez da zerbait berria; sagarrondoek intsektuek ematen dioten polinizazio zerbitzua behar dute, ezinbestean, eta horretarako, nekazari askok erlauntzak jarri izan ditu urtetan bere sagasti inguruan. Erle arrunta (*Apis mellifera*) polinizatzaile ona baita.

Polinizazioa ordea ez da soilik erle arruntaren lana. Serida zerbitzuko Rodrigo Martínez Sastrekin batera egindako azterketa baten bidez, sagastietan dauden intsektu polinizatzaileak hobeto ezagutu nahi izan dituzte, eta prozesu horretan parte hartzen duten espezieak ezagutu. Ondorioen arabera, polinizazioa egiten duen intsektu dibertsitate handia dago sagastietan. Orotara 101 ezberdin. Erle arruntek talde horren %61 osatzen du, baina badira ere siridoak (%21), erle basatiak (%7), eulien taldeko dipteroak

(%6), erlastarrak (*Bombus* generoa) (%3), edota kakalardo, tximeleta eta beste intsektu batzuk ere (%2).

Beraz, polinizazioa ezin da erleetara soilik mugatu, aitzitik, ahalik eta polinizatzaile dibertsitate altuena erakartzea da gomendagarriena. Garai batean sagarrondoaren inguruan erlauntzak jartzen ziren moduan, Asturiasen ere egin dute erle espezie ezberdinak sagarrondo inguruetara erakartzeko ahalegina. *Osmia* generoko erlearentzako, esaterako, zulo txiki ugari osaturiko egurrezko etxeak jarri dituzte sagastietan. Zenbat eta polinizatzaile gehiago, orduan eta uzta hobe edukitzeko aukera handiagoa izango baita.

HEGAZTIK ETA IZURRITEEN KONTROLA

Sagastietan eta inguruetan bizi diren animaliek, polinizatzeke ez ezik, izurriteen kontra egiteko ere balio dute. Izurriteen kontrol biologikoa ikertzeko garaian, hegaztiengan jarri dute arreta ikertzaileek. Txoriak erakartzea neurri ona izan al daiteke sagastietako izurriteen kontra egiteko? Zein txori mota gotea komeni da?



USURBIL
SAGARRAREN BIHOTZA,
SAGARDOAREN KULTURA

urte osoan
sagardoaren inguruko kulturaz
ikasteko eta gozatzeko aukera

www.usurbil.eus/eu/usurbil-sagarraren-bihotza-sagardoaren-kultura



Horiek guztiak ikertzeko, García eta Miñaroren taldeek metodologia berezia erabili dute: izurriteak eragiten dituzten intsektuen neurketak egin dituzte egoera ezberdinetan. Aurretik aipaturiko 25 sagastietako sagarrondo batzuetan, adar jakin batzuk kaiola itxurako sare gogorrez itxi dira. Kaiola horiek intsektuak adarretara sartzea baimentzen badute ere, ez diete hegaztiei sartzen uzten, eta honela, txoriak sar daitezkeen eta sar ezin daitezkeen adarren arteko konparaketak egin dituzte. Hegaztirik sartu ezin den adarretan, izurriteak sor ditzaketen intsektuen kopurua nabarmenki altuagoa da txoriak sar daitezkeen adarretan baino.

Hegaztiak ez ezik, intsektuek ere paper garrantzitsua joki dezakete izurriteen kontra. Sagarrondoetako lore-gurgurioak (*Anthonomus pomorum*), esaterako, izurriteak sor ditzake sagastietan. Bada, horien etsai dira hainbat hegazti eta artropodo, Asturiasen egindako ikerketek ondorioztatu dutenez. Txoriek, esaterako, loraketa aurretik sagastian dauden lore-gurgurioen %31 desagerrarazten dute, eta loraketa ostein, %44. Honek eragina du urte horretako uztan bertan, edota hurrengo urtekoan (lore-gurgurio kantitatea txikitu dutelako).

Lore-gurgurioen etsai nagusiak dira kaskabeltz handiak (*Parus major*), amilotx urdinak (*Cyanistes caeruleus*), txinbo kaskabeltzak (*Sylvia atricapilla*) eta txioak (*Phylloscopus generoa*). Zomorroen artean, inurriak, armiarmak eta ipurtsardeak.

KANTITATEA EZ DA NAHIKOA, DIBERTSITATEA BEHAR DA

Izurriteen kontra egin eta polinizazioa hobetzeko, ahalik eta intsektu eta hegazti kopururik handiena erakarri behar da, baina kantitatea ez da nahikoa. Dibertsitatea behar da, hau da, ahalik eta espezie gehien, ahalik eta kantitate handiengan erakartzea sagastietara. Zergatik? Dibertsitate funtzionalagatik.

“Dibertsitate funtzionalak” adierazten duena da espezie bakoitzak hainbat forma, tamaina, ohitura eta bizileku izan

ditzakeela. Eta, beraz, espezie bakoitzak funtzio ezberdina bete dezake sagastian: batzuk sagarrondoaren beheko aldean ibiliko dira, besteak adar txikietan, besteak enborrean... Udaberrian batzuk, besteak udan, edota udazkenean. Goizez batzuk, eta besteak eguerdian edota gau aldera... Alegia, zenbat eta espezie gehiago izan, orduan eta aukera gehiago izango da sagastiaren eta sagarrondoaren hainbat gunetan dauden loreak polinizatzeko, eta garaian-garaian dauden izurriteei aurre egiteko.

Hori guztia kontrolatzeko, polinizatzaileen bisita kopuruak eta hainbat espezieren mugimenduak ikertzen aritu ziren 2016an. Mugimenduen artean ezberdindu zituzten polinizatzaileak lorera gerturatzean erabiltzen zuen teknika. Baziren goitik sartzen zirenak (erle arrunta, erlastarrak, sirfidoak...) lorearen ugaltzatuekin kontaktua erraztuz, eta, beraz, ernalketarako aukerak handituz; eta baziren alboetatik gerturatzen zirenak ere (erlastarrak, erle basatiak...). Halaber, espezie bakoitzak bisitak eguneko zein ordutan egiten dituen ere ikertu zuten, edota sagarrondoko zein loreak zuten polinizatzeko erraztasun handiagoa, arbolan zuten kokapenaren arabera.

Ezberdintasunak ikusi zituzten baita ere espezie bakoitzak polena edo nektarra jasotzen zuten aztertzean. Erlastarrek eta erle basatiek polen gehiago hartzen dute erle arruntak, sirfidoek eta euliek baino. Lorearen ugaltzatuekin kontaktatzen dutenez, polinizazioa errazten dute.

Erlastarrek sagastiaren goiko alderako joera dute, egunaren amaieran eta minutuko 16,7 bisitaldi egiten dituzte. Erle arruntak bisitaldi erdia egiten du minutuko (8,7) eta sagarrondoaren edozein tokitan aurki daitezke, batez ere goizez. Goizez ibiltzen dira baita ere sirfidoak (4,7 bisita minutuko) eta euliak. Sirfidoek arbolaren beheko partea dute gogoko, erle basatiek bezala (4,8 bisita minutuko). Azken hauek, karkalardoekin batera, eguerdian egiten diote bisita sagastiari.

Ondorioa garbia da, beraz. Gero eta polinizatzaile dibertsitate handiagoa, orduan eta polinizatzeko aukera handiagoa.



LARRE-GAIN
SAGARDOTEGIA

Astez ere eguerdian zabalik
Hernanitik autobus zerbitzuak ostiral eta larunbatetan
Sagardo naturala urte osoan botiletan salgai

Larre-Gain etxea - Ereñotzu
© 943 555 846 / 616 287 867

EGUR IKATZAK



IOSU

📞 **629 477 108**

HEGAZTIEKIN, ONDORIO BERA

Sagastiek duten txori aniztasuna ikusi nahian, bi urtez 10.000 behaketa egin dituzte ikertzaileek, eta guztira 63 espezie kontatu. Horietatik 23, arbolekoak eta intsektujaleak. Behaketa gehienak (%70) sei hegaztik osatu dituzte, ordea, txantxangorriak (*Erithacus rubecula*), zozoak (*Turdus merula*), txinbo kaskabeltzak (*Sylvia atricapilla*), txepetxak (*Troglodytes troglodytes*), kaskabeltz handiak eta amilotx urdinak. Hegazti dibertsitate altua izan dezaketen sagastiek, intsektuek bezala, dibertsitate funtzional handia izan dezakete txori intsektujale eta zuhaitzarren artean. Tamaina txiki eta moko fineko hegaztiak (erregetxoak edota txioak) kimuetan dauden landare-zorrien kontra egiten dute, eta enborretan gora eta behera ibiltzen diren okilek (*Picus* eta *Dendrocopos* generoak), gerri-txoriek (*Certhya* generoa) eta garrapoek (*Sitta europaea*) enborreko zirrikituetako karpokapsaren harrak (sagarrondoan kaltea sor dezakeena) jan ditzakete. Kaskabeltzek, amilotxek eta txinboek lore-gurgurioei egingo diete aurre adar sendoetan, eta zozo eta txantxangorriek arbolaren oinean dauden karpokapsa eta lore-gurgurio helduei.

Txori dibertsitate handiagoak izurriteei aurre egiteko aukerak areagotzen dituzenez, txorien habi-kutxak jartzen ere hasi dira sagasti askotan, sagarrondo zaharren hutsuneak hegazti espezie batzuek umatzeko lekuen falta izatea ere ekarri baitu.

ZER EGIN SAGASTIETAKO BIOANIZTASUNA HANDITZEKO?

Hegaztiak eta intsektuak erakartzeko, Garciak eta Miñarrok gomendio batzuk ematen dituzte.

- Sagastien kokapena: Gune natural edo basatiz inguratua dauden sagastiak aberatsagoak izango dira espezie aldetik.
- Sagastia bera: Sagastiaren sabaia oso itxia denean, alegia, adar askorekin estalia dagoenean, hegazti dibertsitatea altuagoa izango da.

- Ingurua: Aniztasun handiagoa izango da sagastiaren inguruan hesi-bizirik daudenean. Hau da, lur-eremuak berreizteko landareak erabiltzen direnean.

Orokorrean, sagastiaren eta inguruko paisaiaren bioaniztasuna handitzeko hartzen diren neurri guztiek, sagastiko fauna dibertsitatea handituko dute eta, beraz, izurriteen kontrako neurri biologikoa eta polinizazioa arrakastatsua izango dira.

Autoreen arabera, sagastiaren mantenu tradizionala egoikiagoa da: pestizida eta herbizida gutxi, eta hainbat lore basatiz osaturiko zelaiak dituzten guneak kontserbatzea da lehentasuna.

Sagastiak osatzen duen paisaiaren eta inguruaren kudeaketa on bat, eta mantenu tradizionala oinarrituriko sistemak askoz egoikiagoak izango dira, beraz.

SAGASTIEK, LURRALDEAREN BIOANIZTASUNARI MESEDE

Bioaniztasunak sagastiei mesede egiten dien modu berean, sagarrondoak dauden eremuaren eta ingurunearen kudeaketa egokia, bertako ekoizpenarentzat ez ezik, lurraldearen bioaniztasunarentzat ere onuragarria izan daiteke. Azken urteetan baserrien eta inguruko lurren erabileraren galtzeak landa-eremuen desagertzea eragin du. Gune horiek sortzen dituzten habitat mosaikoak, aldiz, oso gune aberatsak izan daitezke.

Egun ditugun sagastien eta inguruan dauden eremuen diseinu eta kudeaketa egokiak, sagar uzta ez ezik, kokatuta dauden lurraldearen bioaniztasunean ere onurak sor ditzake. Bertako sagarrak eta produktu ekologikoen indarra hartu duten garaian, hurrengo pausoa sagasti bioanitzak sortzea litzateke. Modu koordinatuan, kudeaketa jakinez eta ekintza txikien laguntzaz, sagardogileentzat ez ezik, gizarte osoarentzat ere onuragarriak izan daitezkeen pausok ematea izango da etorkizuneko lana. ■

Bizkaian, bizkaiko sagardoa

Herriak	Urdin	Urdin	Urdin	Urdin
Leku Erri Sagardoa Jose Amalobets Arriola Tel.: 94 613 91 79	Etxebarria Sagardoa Iñaki Etxebarria Tel.: 94 674 29 10	Egunkira Sagardoa Márcel Abajo Tel.: 601 296 915	Lanako Koop Leartzi Sagardoa Tel.: 94 654 29 26	Lizarri Sagardoa Jose Antonio Zamalloa Tel.: 94 630 68 15
Erdikoahe Sagardoa Andoni Oñiguren Zorrosa Tel.: 94 457 32 85	Ajepe Sagardoa Jose Antonio Bilbao Tel.: 94 616 82 85			Ehrentaga Sagardoa Uria Bilbao Tel.: 607 001 925

Bizkaiko sagardoaren alde egin, anima zaitzez

bizkaiko sagardogileak

www.bizkaikosagardoa.eus

TREBIÑU
sagardotegia
www.trebinu.com

Askartza (Trebinu)

945 24 48 52
657 73 65 99

Sagardoaren nortasun agiria

Zer edaten dugun badakigu?

Ekoizle ugariaren hainbat sagardo mota dugu eskura inguruko ostatu eta saltokietan, baina kontsumitzaile askok ez dugu zehazki bat eskatuko, eskainiko diguten lehenbizikoa baizik, edo prezioagatik gehien konbentzitzen gaituena bestela, jakitun izan gabe etiketa bakoitzak zein errealitate ordezkatzen duen, sagarraren jatorri eta ekoizpen motatik hasita. Bertokoari balio handiagoa emateko, zuku bakoitzaren ezaugarriak argiago azaldu beharko liratekeela uste du zenbait ekoizlek.



Jon Torner Zabala

@jtorner

Horietako bat da Jose Antonio Zamalloa, Zornotzako Uxarte sagardotegiko burua. Euren sagastietako aleekin egiten dute sagardoa, eta "Euskal Sagardoa" izendapen *txapelgorriarekin* merkaturatu, bertako lehengaiak egindako zukuaren kalitate bermearekin. "Altxorra dugu hemen", esan digu gurean dauzkagun sagar barietateez mintzo, baina ez dela behar bezala zaintzen: "Uste dut sagar ekoizpenak eta sagarrek eurek balioa galdu dutela. Baserrietan ekoizten den sagarra ez litzateke izan behar industriarako lehengai merkea. Gure sagastietako aleek itzelezko ezaugarri positiboak dituzte, eta hori ez badugu balioan jartzen, baserriek eurek ere galduko dute balioa". Arazoa orokorra dela dio, nahiz eta onartu Gipuzkoarekin alderatuta sektoreak garrantzi txikiagoa duela Bizkaian.

Euskal Herriko sagastietan mahairako zein sagardoa egiteko "itzelezko balioa" duten aleak lortu ahal direla azaldu digu, besteak beste indartsuagoak direlako beste leku batzuetakoak baino, modu industrialean ekoiztu direnak gainera. Ekoizpen modua desberdina da kasu bietan, baita ba-

koitzaren merkatu-prezioa ere, bertako aleekin lan egiten duten ekoizleen kalterako gehienetan. Merkeagoa izan ohi da kanpoko sagarrak baliatzen dituen sagardoa, eta horiekin lehiatzea ia ezinezkoa dela dio Zamalloak: "Bertokoari lehentasuna eman eta gauzak garbi adierazi behar dira, kontsumitzaileek hori baloratu eta zer edaten ari diren jakin dezaten". Instituzioek, kalitatezko zigilua ematekotan, soilik bertako sagarraz egindako sagardoari eman beharko lioketela esan digu zornotzarrak: "Lehen, Labelak, bere gabeziekin, gauzak argi azaltzen zituen, baina orain... Bertakoa kontsumitu behar dugula esaten dugu; ordea, sagardo naturalaren kasuan, bertakoa zein den bereiztea ez da erraza".

Uxarte sagardotegiko botiletako etiketetan, "Bertoko sagarrekin egindako sagardoa" ageri da idatzita izenaren azpian. Beste ekoizle batzuek zein sagar barietate erabili dituzten azaleratu dute: Moko, Txalaka, Goikoetxe, Urtebi... Ideia ona izanagatik, estrategia bateratua baino, ekoizle bakoitzak bere senak diotenari erantzuten diola azaldu digu Zamalloak. Bertako produktua ezagutzera eman eta

OTSUA-ENEA

SAGARDOTEGIA



Osinaga auzoa
20120 Hernani
☎ 943 556 894
630 421 090
info@otsua-enea.com
www.otsua-enea.com

ELUTXETA

TOLARE SAGARDOTEGIA



Oztaran bailara
Tel.: 943 55 69 81
20130 URNIETA
(Gipuzkoa)



J.A. Zamalloa: "Bizkaian, txorrot bat jarri eta kito, edozein taberna bihur liteke sagardotegi. Nik urte mordoia daramat sagarrondoak landatzen, sagardotegia duela 20 urte zabaldu nuen... eta gero, txorrot huts batekin...".



haren balioa aitortzeko, estrategia orokorragoa jarraitu behar dela dio.

Zentzu horretan, lagungarria litzateke sagardo bakoitzaren bereizgarriak azaltzea, zein sagarrekin eta nola eginak izan diren adibidez, bestelako argibideekin batera.

FRAISORO, KALITATE-ZIGILUEN "EPAILE"

Balizko informazio hori guztia biltzeko iturri nagusia, Fraisoro ingurumen eta nekazal laborategi, kalitate eta berrikuntza zerbitzua litzateke ziurrenik, egoitza Zizurkilen duena. Gipuzkoako Foru Aldundiak kudeatzen du, eta han analizatzen dituzte "Euskal Sagardoa" entitateak helarazten dizkien sagardoak, kalitate-zigilua merezi ote duten egiaztatzeko, HAZI fundazioak ziurtatzen duen prozesuan: azterketa fisiko-kimikoak batetik, eta dastatze-analisia bestetik. Laborategiak prozesu bera burutzen du "Gorenak" zigiludun sagardoekin. Hastapenean pribatua bazen ere, "Euskal Sagardoa" bezala gaur egun publikoa da kalitate

-ziurtagiri hori ere, kanpoko sagarrekin egindako zukuaz mintzo garen arren. Botilek *txapela* beltza dute bereizgarri.

2017an 7.000 sagardo lagin aztertu zituen laborategiak, Agurtzane Andueza kimikariak azaldu digun moduan. Analitika fisiko-kimikoen bidez fermentazioa nola doan, azidotasuna eta beste hainbat parametro neurtzen dituzte; eta dastatze fasean sagardoa ikusi-usaindu-ahoratu egiten dute, baita oreka eta gorputza neurtu ere. Fase hau, analisi sensorialarena, subjektibo samarra ez ote den galdetuta, ezetz erantzun digu Anduezak, dastatzaileek formakuntza oso zorrotza jaso dutelako, euren ondorioak bat etor daitezen dastatze-panelaren parametroekin. "Beste kontu bat da norberari zein sagardo gustatzen zaion gehiago, gozo, mingots ala garratzagoa, baina horrek ezin du dastatzaileen balorazioa baldintzatu".

Ardoaren (mahatsaren) kasuan ez bezala, dozenaka sagar barietate daude –Euskal Sagardoa izendapenaren araudian adibidez 115 barietate daude onartuak–, oso gaziak

BORDATXO

Zubiaurrenea, 5 - behea
Usurbil (Gipuzkoa)
☎ 943 371 042

URPA
BUS

Pol. 55, Bº Ubilluts · edif. 9 / nº4
☎ 943 305 050
20140 Andoain (Gipuzkoa)
www.autocaresurpa.com

MARTIKORENA
ERREMENTARITZA

Tel. 943 593 606 / 615 782 964
20140 Andoain (Gipuzkoa)
info@herreriamartikorena.com
www.herreriamartikorena.com

Burdinean neurrirra egindako lanak

MARCOS
okindegia

**Benetako
aitzinako ogia**

☎ 943 450 966
Ubarburu pasealekua, 113
Astigarraga (Gipuzkoa)



"Euskal Sagardoa" eta "Gorenak" kalitate-zigiluak lortzeko ezinbestean behar dira Fraisororen analisiak "gainditu". Agurtzane Andueza kimikariak eman dizkigu zerbitzuari buruzko azalpenak.

(txalaka modukoak, kolore argiko sagardoa emango dutenak), mikatzak (mozolua esaterako, ilunera egingo dutenak) eta, tartean, mordoxka bat gehiago. "Dastatzaileak ezin dezake esan bata hobea denik bestea baino, nahiz eta zapore aldetik-eta gehiago gustatu; denak behar dira berdin baloratu eta onartu, kalitate-parametroak betetzen badituzte bederen", azaldu digu Anduezak.

Duela urtebete inguru, azterketa mikrobiologikoak ere egin ahal izateko pausoak eman zituen Fraisorok, baina egitasmoak ez du aurrera egin, analisi genetikoak egitea oso garestia eta konplexua delako. "Nire ametsa hori da, sagardo, txakolin eta abarren analisi genetikoak egin ahal izatea. Jakingo genuke, esaterako, sagardo bakoitza zein sagar mota (jatorria...) eta kopururekin egina dagoen zehazki". Gaur gaurkoz, horrelako analisi sakonik egitea posible ez bada ere, azaldu digu ekoizleek ezin dutela "tranparik" egin, kanpoko sagarrak bertakoak balira bezala aurkeztuta esaterako, "Euskal Sagardoa" jatorri deiturak kontrolatzen dituen sagastiek homologaturik egon behar dutelako.

"Euskal Sagardoa" zigiludun zukuen kasuan, Unai Agirre buru duen entitate horrek berak helarazten dizkio ekoizleentzako botilak laborategiari, etiketarik gabe. Laborategiak ez daki sagardo hori norena den; analisiak egin osteko emaitzak entitateari bidaltzen dizkiote zuzenean, eta hark erabakiko du txapel gorria merezi duen ala ez, barne-arauetan oinarrituta. "Gorenak" markako kasuan, aldiz, sagardogileek jasotzen dute emaitza; badakite puntuazio batetik aurrera txapel beltza jar dezaketela.

Anduezaren hitzetan, laborategira jotzen duten ekoizle guztiak ez doaz kalitate-zigilu baten aitzakian, euren produktuaren ezaugarriak zehatzago ezagutu eta zer hobetu jakiteko baizik. Sagardogileek badituzte enologoak euren zerbitzura, baina laborategiak informazio sakonagoa eman dezake, eta belaunaldi berriak geroz eta kontzienteago dira azterketa horien balioaz, kimikariak azaldu digunez: "Analisiak egiten hasi ginenetik sagardoaren kalitatea asko hobetu da. Ekoizleek puntuazio ahalik eta altuena lortu nahi dute". ■



**Sagardoa egiteko produktuak,
makinak eta muntaia**

☎ 944 445 249 • enolviz.com

sulabe



Florida auzoa, 32 · 20120 Hernani (Gipuzkoa) ☎ 943 554 950



Asteasuko Goiko Errota. Bertan jaio ziren Pello Errota, Mikaela Elizegi eta Joxepa Inaxi Elizegi bertsolariak.

Joxepa Inaxi Elizegi

XIX. mendeko sagardotegiko bertsolaria

Pello Errota hil zela 100 urte beteko dira 1919an. Bertsolari handiaren oroimenez hainbat ekitaldi egiten ari dira. Mikaela Elizegi Bengoetxea ere bertsolari ezaguna zaigu, berari esker idatzi baitzuen Antonio Zavalak Auspoa sailean *Pello Errotaren bizitza bere alabak kontatua* liburua. Zavalak Pello Errotari buruzko mahai-inguruan esango zuenez (*Bertsolari aldizkariko* 17. zenbakian Laxaro Altunek 26. orrian jaso), liburu hori ez zen erdia ere izango Mikaela Elizegigatik ez balitz. Baina Mikaela Elizegiri zor diogu, baita ere, jakitea bere ahizpa Joxepa Inaxi bertsolaria zela.

Hernanin gozatu eta arduraz jokatu

euskara ari du
Hernaniko Udala



Estitxu Eizagirre Kerejeta

@eeizagirre

Joxepa Inaxi 1864an jaio zen, eta hau dio Mikaela Elizegik bere ahizpaz Pello Errotaren bizitza bere alabak kontatua liburuan: “Gure ahizpa Joxepa Inaxi senideetan bigarrena genduan, eta bertsoan zekiana zan. Garai hartan Astiasuko plazan bi sagardotegi ere baziran. Sagardorik ez genduan etxean, errotan, eta kaletik eramaten genduan. Ta gure ahizpa hori sagardo eske joango zan, da han bi mutil-zahar bertsoan ari omen ziran. Aitaren gainean-edo ariko ziran, da orduan gure ahizpa horrek bertso hau bota zien”:

*Bertsotan ari dira
bi galtza-jario,
bat
bestia Antonio,
jendia emen dago
hoik diala merio,
aita guriarentzat
ez dute balio.*

Joxepa Inaxiren bat-bateko bi bertso iritsi dira gaurdaino: biak sagardotegian kantatu zituenak, eta biak Mikaela Elizegik gogoan hartu eta Antonio Zavalaren liburuetan bukatu zutenak. Hona bigarrena, Mikaelak kontatuta: “Behin batean, gure ahizpa Joxepa Inaxi, sagardotegian toriatu egin zuten, bertsoan hasteko alegia, eta gure ahizpa horrek horrela kantatu zien:

*Gogorikan ez daukat,
lotsa bestetikan,
horra emakumea
naizen partetikan;
toriatzen banazue
aldamenetikan,
ederrak aditzeko
zaute nigandikan.*

Eta hori esanda alde egin zuan handik, gehiago ez kantatzeagatik».

Bi bertso dira, baina oso garrantzitsuak: izan litezke sagardotegian bat-batean emakumeek kantatuta ezagutzen diren bertso zaharrenak, eta bakarrak. Norbaitek besteren batzuen ezaguerarik badu, esan edo pasa.

BI AHIZPA ELKARRI BERTSOAK GUTUN BIDEZ BIDLIZ

Mikaelak kontatzen du bere ahizpa Joxepa Inaxi bertsolaria 20 urte ingururekin Argentinara joan zela. Mikaelak xehe-tasun bat eman zuen kontakizunean, emakumeen migratioarekiko dugun iruditegiarekin bat ez datorrena: “Orduan neskaxa kuadrillak joaten ziren, eta gure ahizpa ere bere neskaxa lagunekin joan zen”. Joxepa Inaxik nahi zuen bere ahizpa Mikaela Argentinara joatea, eta honek ezetz esaten zion. Kartaz elkarririk bertso bana jarri zioten gai horren inguruan, eta Mikaelak gorde zituelako dugu hauen berri:

Joxepa Inaxi:

*Nere ahizpa Mikela
nik abixaturik,
ez duela etorri nahi
bidean bakarrik,
ez det nahi eukitzea
etxean negarrik,
hor gelditzen bazera
zeretzat alferrik.*

Mikaela:

*Ahizpa, bidaltzen dizut
horren errespuesta,
oraindik ni juatea
segurua ezta,
horrenbeste enpeñoz
gelditzea gaitz-ta,
akaso joango naiz
mudakorra naiz-ta.*

mitxelena
LARGE-SCALE CUSTOM MACHINING

Neurri handiko mekanizazioa

Eziago poligonoa, 21
HERNANI
T. 943 55 25 12 - 16
T. 943 55 28 16
info@talleresmitxelena.com
www.talleresmitxelena.com

ogiaren egia

AUKERA ZABALA:

- Orantza ogiak (M. madre natural)
- Harri errotako irinez eginak
- Ogi biologikoak

Galparsoro OKINDEGIA - Galtxuri ogoi osoak (Espelta)

Ogi guztiak loaldi luzekoak
Zaporea eta osasuna helburu

Kale Nagusia 6 (Alde Zaharra) · Donostia · Tel. 943 421 074
www.galparsorookindegia.eu



Astigarraga, Sagardoaren Iurraldea



Astigarragako Udala



Urnieta

*Urnietan ere
sagardo garaian
txotx!*



Urnieta
udala

EUSKAL HERRIKO SAGARDOTEGIEN GIDA

SAGARDOTEGIA	HERRIA / PROBINTZIA	TELEFONOA
Zalbide	Abaltzisketa	Gi 943 652 176
Zabala	Aduna	Gi 943 690 774
Aburuza	Aduna	Gi 667 600 874
Satxota	Aia	Gi 943 835 738
Izeta	Aia	Gi 943 131 693
Martintxoenea	Aldaz	Na 948 604 607
Olagi	Altzaga	Gi 943 887 726
Gaztañaga	Andoain	Gi 943 591 968
Mizpiradi	Andoain	Gi 943 593 954
Iturrieta	Aramaio	Ar 685 721 593
Sarasola	Asteasu	Gi 943 690 283
Akelenea	Astigarraga	Gi 943 333 333
Alorrenea	Astigarraga	Gi 943 336 999
Artola	Astigarraga	Gi 943 557 296
Astarbe	Astigarraga	Gi 943 551 527
Bereziartua	Astigarraga	Gi 943 55 57 98
Etxeberría	Astigarraga	Gi 943 555 697
Gartziategi	Astigarraga	Gi 943 469 674
Gurutzeta	Astigarraga	Gi 943 552 242
Ipintza	Astigarraga	Gi 688 81 17 24
Irigoién-Herrero	Astigarraga	Gi 943 550 333
Larrarte	Astigarraga	Gi 943 555 647
Mina	Astigarraga	Gi 943 555 220
Oialume Zar	Astigarraga	Gi 943 552 938
Oiarbide	Astigarraga	Gi 943 553 199
Petritegi	Astigarraga	Gi 943 457 188
Rezola	Astigarraga	Gi 608 143 332
Sarasola	Astigarraga	Gi 943 555 746
Zapiain	Astigarraga	Gi 943 330 033
Urbitearte	Ataun	Gi 943 180 119
Txopinondo	Azkain	La 559 54 62 34
Añota	Azpeitia	Gi 943 812 092
Laka-Erdi	Berriatua	Bi 608 673 208
Behetxoenea	Beruate	Na 948 503 136
Beloqui	Biriatu	La 559 20 66 25
Txindurri Iturri	Deba / Itziar	Gi 699 684 490
Eztigar / Beltchu	Donaixti-Ibarre	BN 559 37 87 12
Araeta	Donostia / Zubieta	Gi 943 362 049
Astiazaran	Donostia / Zubieta	Gi 943 361 229
Barkaiztegi	Donostia	Gi 943 451 304
Calonge	Donostia	Gi 943 213 251
Lizeaga	Donostia	Gi 943 468 290
Egi-Luze	Errenteria	Gi 943 523 905
Elexalde	Galdakao	Bi 944 563 867 944 571 614
Akarregi	Hernani	Gi 943 330 713
Alberro	Hernani	Gi 943 550 019
Altzueta	Hernani	Gi 943 551 502

SAGARDOTEGIA	HERRIA / PROBINTZIA	TELEFONOA
Elorrabi	Hernani	Gi 943 336 990
Goiko-Lastola	Hernani	Gi 943 553 272
Iparragirre	Hernani	Gi 943 550 328
Itxasburu	Hernani	Gi 943 556 879
Larre-Gain	Hernani	Gi 943 555 846 616 287 867
Olaizola	Hernani	Gi 943 336 731
Otsua-Enea	Hernani	Gi 943 556 894 630 421 090
Rufino	Hernani	Gi 943 552 739
Zelaia	Hernani	Gi 943 555 851
Begiristain	Ikaztegieta	Gi 943 652 837
Ola	Irun	Gi 943 623 130
Bordathio	Jaxu	BN 559 49 18 22
Otegi	Lasarte-Oria	Gi 943 365 029
Aulia	Legorreta	Gi 943 806 066
Larraldeá	Lekaroz	Na 948 452 121
Toki Alai	Lekunberri	Na 650 450 161
Linddurrenborda	Lesaka	Na 948 637 212
Lezama	Lezama	Bi 944 556 368
Goikoetxea	Lizartza	Gi 609 714 203
Axpe	Markina-Xemein	Bi 946 168 285
Sebastianeko	Mendexa	Bi 946 842 642
Aldaiondo	Murugarren	Na 948 553 218
Kandi	Muxika	Bi 946 253 382
Baleio	Oiartzun	Gi 626 693 074
Ordo-Zelai	Oiartzun	Gi 943 491 686
Etxe-zuri	Olaberria	Gi 665 726 846
Tximista	Ordizia	Gi 943 881 128
Eguzkitza	Tolosa	Gi 943 672 613
Isastegi	Tolosa	Gi 943 652 964
Trebiñu (Askartza)	Trebiñu	Ar 945 244 852 657 736 599
Altuna	Urnieta	Gi 943 55 49 17
Elutxeta	Urnieta	Gi 943 556 981
Eula	Urnieta	Gi 943 552 744
Oianume	Urnieta	Gi 943 556 683
Setien	Urnieta	Gi 943 551 014
Aginaga	Usurbil	Gi 943 366 710
Aialde Berri	Usurbil	Gi 943 365 031
Arratzain	Usurbil	Gi 943 366 663
Urdaira	Usurbil	Gi 943 372 391
Saizar	Usurbil	Gi 943 364 597
Arizia	Zarautz	Gi 943 501 013
Oiharte	Zerain	Gi 943 501 013
Otatza	Zerain	Gi 943 801 757 636 028 784
Uxarte	Zornotza	Bi 946 308 815

ADUNA



ZABALA

Garagartza baserria
Tel. 943 69 07 74
info@rzabala.com · www.rzabala.com
Urtarriletik maiatzera bukaera arte irekita.
Igande gauetan itxita.

AIA



IZETA

Izeta baserria · Urdaneta bidea
Tel. 943 13 16 93
izetasagardotegia@gmail.com
www.izeta.es
Urte osoan irekita, abenduan ezik,
sagardotegia eta jatetxea.

ARAMAIO



ITURRIETA

Arraga Auzoa 2
Tel. 945 445 383 / 685 721 593
jj.iturrieta@yahoo.es
iturriasagardotegia.blogspot.com
Urtarrilaren 15etik maiatzera txotx garaia;
maiatzetik iraila bukatu arte erretegia.

ASTIGARRAGA



GURUTZETA

Oialume bidea, 63
Tel. 943 552 242
gurutzeta@gurutzeta.com
www.gurutzeta.com
Urtarrilaren 19tik apirilaren 28ra arte.

ASTIGARRAGA



IPINTZA

Santio Zeharra, 12 (Ipintza Baserria)
Tel. 688 811 724
ipintza@ipintza.com
www.ipintza.com
Urte osoan sagardoa txotxetik.

ASTIGARRAGA



OIALUME ZAR

Mikel Arozamena, 16
Tel. 943 552 938
oialumezar@gmail.com
www.oialumezar.com
Urtarrilaren erdialdetik
maiatza hasiera arte irekita.

ASTIGARRAGA



PETRITEGI

Petritegi bidea, 8
Tel. 943 457 188
www.petritegi.eus
Urte osoan irekita,
bazkaltzeko eta afaltzeko.

BIRIATUA



BELOQUI

Departamentale 810
64700 Biriatu
Tel. 00 33 559 20 66 25
Tamaina: 100 jankide · Urte osoan irekita.

DONOSTIA



ASTIAZARAN-IRUIN

Irigioen baserria · Zubieta auzoa
Tel. 943 36 12 29
ion@iruinisagardotegia.com
Urtarriletik maiatzera irekia sagardo
denboraldirako; ekainetik abendura plater
bereziak eta txotxerako kupelak.

MARKINA-XEMEIN



AXPE

Axpe baserria · Atxondo auzoa
Tel. 94 616 82 85
axpesagardoa@yahoo.es
www.axpesagardotegia.com
Urte osoan irekita; janaria norberak ekarria;
14 urte bitartekoentzat doan (10-15 lagun).

ORDIZIA



TXIMISTA

Gudarien etorbidea, 2 · Tel. 943 881 128
tximistasagardotegia@gmail.com
www.tximistasagardotegia.com
Urte osoan irekita. Aste osoan bazkariak;
ostegunetik larunbatera afariak,
besteak enkarguz.

TOLOSA



ISASTEGI

Aldaba Txiki auzoa
Tel. 943 652 964
isastegi@isastegi.com
www.isastegi.com
Urtarrilaren 13tik apirilaren 28ra arte.
Ilgandeetan itxita.

USURBIL



AGINAGA

Aginaga auzoa
Tel. 943 366 710 / 943 370 668
info@aginagasagardotegia.com
www.aginagasagardotegia.com
www.aginagahotela.com
Urte osoan sagardoa txotxetik!
Astelehenak itxita. Abenduan porrak.

USURBIL



URDAIRA

Urdaira baserria · Aginaga auzoa, 63
Tel. 943 372 691
urdaira@urdaira.com
www.urdairasagardotegia.com
Urtarriletik maiatzera hasierara;
afariak egunero, bazkariak asteburutan;
igande gaua eta astelehena itxita.

ZERAIN



OIHARTE

Irukarate-gain auzoa
Tel. 686 299 158 / 943 501 013
sagardotegia@oiharte.com
www.oiharte.com


ZORNOTZA



UXARTE

Montorra, 6 · Montorra auzoa
Tel. 94 630 88 15
uxarte@bilbao.com
www.uxarte.com
Urte osoa (asteburuetan) irekia.

Betiko Sagardoa



SAIZAR
Sagardotegia

ABANGOARDIA
& TRADIZIOA

Kale-zahar, 39 · 20170 USURBIL (Gipuzkoa) ·  943 373 995 · sidreria@sidrassaizar.com

www.sidrassaizar.com



Euskadiko kalitatezko sagardo markak

Euskal Sagardoa

- %100 bertako sagarra
- Goi-kalitatea
- HAZI Fundazioak egiaztatua
- Fraisoro Laborategian kalifikatua
- Sagardoaren apustua: oraina eta etorkizuna



www.euskalsagardoa.eus

Gorenak

- Han-hemengo sagarra
- Goi-kalitatea
- HAZI Fundazioak egiaztatua
- Fraisoro Laborategian kalifikatua

www.sagardogorenak.eus



ELUSKO JAURLARITZA
GOBIERNO VASCO